

ALEGRÍA-DULANTZIKO IKASTETXE PUBLIKOAN MANTENTZE-LANETARAKO LANGILE-LANPOSTUAREKIN LOTUTAKO ALDI BATERAKO ORDEZKAPENAK EGITEKO ETA UNEAN UNEKO LAN-BEHARRAK ASETZEKO LAN-POLTSA SORTZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

Lehena. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea lan-poltsa bat sortzea da, Alegría-Dulantziko ikastetxeko mantentze-lanetarako langile-lanpostuaren zerbitzutik sor daitezkeen aldi baterako ordezkapenak egiteko eta behar zehatzak betetzeko.

Alegría-Dulantziko ikastetxeko mantentze-lanetarako langilearen lanpostuak euskararen 2. hizkuntza-eskakizuna du esleitura, derrigortasun-data igarota.

Alegría-Dulantziko ikastetxeko mantentze-lanetarako langile-lanpostuek soldata, aparteko ordainsariak eta gainerako ordainsari osagarriak dituzte, bete beharreko lanpostuaren arabera LPZn lanbide-taldeari eta mailari dagozkionak.

Bigarrena. Lanpostuen ezaugarriak

Lanpostuaren eginkizunak, zereginak, rolak eta gainerako ezaugarriak dagozkien eranskinetan zehaztuko dira, hautagaientzat informazio gisa balio dezaten eta hautaketa-prozesuko ebaluazio-irizpideen oinarri gisa.

Lanaldia Alegría-Dulantziko Udalak urtero ezartzen duena izango da, betiere lanpostuen izaera eta behar espezifikoak kontuan hartuta.

Hirugarrena. Hautagaien betekizunak

Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuan parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Europar Batasuneko estaturen bateko herritartasuna izatea edo, EBk sinatu eta Espainiako Estatuak berretsita nazioarteko itunen arabera, langileen zirkulazio askea aplikatzeko zaion estaturen bateko herritartasuna izatea (Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren 5/2015 Legearen testu bateginaren 57. artikuluan xedatutakoaren arabera). Edo, bestela, EBko estatu kideetako herritarren baten ezkontidea izatea –betiere legez bananduta ez badaude– edo haren ondorengoa izatea –21 urtetik beherakoak edo adinekoak izanez eta mendekotasuna edukiz gero–.
- Gutxienez hamasei urte beteta izatea eta, gehienez, nahitaezko erretirorako adina.
- Lehen mailako ikasketen ziurtagiria edo baliokidea izatea, edo ziurtagiri hori eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea.
- Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen agiria eduki beharko da.
- Diziplina-espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizita ez egotea eta funtzio publikoak betetzeko desgaituta ez egotea.
- Eskuratu nahi den lanpostuari dagozkion zereginak normaltasunez betetzeko beharrezko gaitasun funtzionalak izatea, eta egin eta eman beharreko eginkizun eta zerbitzuak normaltasunez betetzea eragotziko duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea.
- Ezgaitasun- edo bateraezintasun-auziren batean sartuta ez egotea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen eduki beharko dira betekizunok beteta, eta oinarrietan ezarritako unean edo eskatzen den beste edozein unetan egiaztatu beharko dira.

Laugarrena. Eskabideak

Hautaketa-proba hauetan parte hartzeko eskabideak oinarri hauen II. eranskinean ezarritako ereduaren arabera izango dira.

Eskabideak izapidetzerakoan, hautagaiak honako hauek hartu beharko dituzte aintzat:

Eskabideak, behar bezala beteta, Alegría-Dulantziko Udaleko alkate-udalburuari bidaliko zaizkio.

Nolanahi ere, eskatzaile guztiek honako hauek aurkeztu beharko dituzte eskabideaz batera:

- NANaren fotokopia.
- Euskararen 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko agiriak, Euskararen Ezagutza-maila Egiaztatzen duten Titulu eta Ziurtagiriak Baliokidetzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan aurreikusitako titulazioetakoren batekin.
- Eskabidean alegatutako merezimenduak balioesteko agirien fotokopia.

Hautagaiek berariaz adierazi beharko dute eskabidean deialdiaren hirugarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela.

Eskabideak aurkezteko epea: hoge (20) egun natural, dagokion deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurkezteko lekua: eskabideak udaletxe honetako Erregistro Orokorrean aurkeztu ahal izango dira, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako moduan. Posta-bulegoetan aurkeztutako eskabideak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, gutun-azal irekian aurkeztuko dira, postetxeko funtzionarioek data eta zigilua jar diezazkieten eskabideak aurkezteko epearen barruan ziurtatuak izan baino lehen. Kasu horretan bakarrik hartuko da aintzat eskabideak postetxean entregatu ziren egunean sartu direla udaletxeko erregistro orokorrean. Eskabideak behar du zigilua.

Aurkezpen telematikoa: interesdunek erregistro telematikoan aurkeztu ahal izango dute eskabidea (<https://alegria-dulantzi.egoitzaelektronikoa.eus/catalog/t/d5a253dc-820f-449f-abf3-0bff75310c0c>), sinadura elektronikoko ziurtagiri elektroniko kualifikatuetan oinarritutako sistemak erabiliz.

Datu pertsonalak erabiltzeko baimen automatikoa: datuen babesari buruzko informazioa.

Erabileraren arduraduna eta datuen babeserako ordezkariarekin harremanetan jartzeko: Alegria-Dulantziko Udala.

Erabileraren helburuak eta datuak gordetzeko epeak: Udaleko langileak hautatzea.

Datuak administrazio-jarduerak iraun bitartean erabiliko dira, eta erabileraren ondorioz sor daitezkeen erantzukizun juridikoen arabera gordeko, bai eta Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen arabera ere.

Erabileraren oinarri juridikoa:

5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa.

2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

Datu pertsonalak eskumena duten beste administrazio publiko batzuei jakinarazi ahal izango zaizkie, hala nola IVAPi edo udalei, Udaleko talde politikoei, langileen batzordeari eta enpresa-batzordeari.

Eskubideak:

Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko edo haien erabilera mugatzeko, bai eta informazio gehiago jasotzeko eskubidea ere, toki-erakundearen helbidera edo posta elektronikora idatziz.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, bertan adierazitako datuak lotesleak izango dira eskatzailearentzat.

Eskabidean ageri den helbidea izango da jakinarazpenetarako balioko duen bakarra. Antzematen diren egiteko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

Bosgarrena. Hautagaien onarpena

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, alkatetzak onartutako eskaeren eta deialditik kanpo utzitako pertsonen behin-behineko zerrenda onartuko du, baztertzeko arrazoiak adierazita. Zerrenda hori Alegria-Dulantziko udaletxeko iragarki-taulan eta haren webgunean argitaratuko da, eta 3 egun balioduneko epea emango da alegazioak egiteko.

Erreklamaziorik aurkeztuz gero, alkatetzaren ebazpen bidez onartu edo baztertuko dira. Ebazpen horrek behin betiko bihurtuko du behin-behineko zerrenda, eta Alegria-Dulantziko udaletxeko iragarki-taulan eta haren webgunean argitaratuko da.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da automatikoki.

Onartutako eskabideen behin-behineko zerrenda argitaratzeaz batera, epaimahai kalifikatzaileko kide titularren eta ordezkoen zerrenda argitaratuko da.

Seigarrena. Kalifikazio-epaimahaia

Kalifikazio-epaimahaia kide anitzekoa izango da, eta karrerako funtzionarioek edo lan-kontratadun langile finkoek osatuko dute. Epaimahaikideek inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioak bete beharko dituzte, eta, era berean, emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna lortu beharko da.

Epaimahaiak presidente bat, idazkari bat eta bi kide izango ditu, eta horiek hitza eta botoa izateko eskubidea izango dute, epaimahaiko idazkariak salbu (hitza izango du, baina botorik ez).

Epaimahaia, gainera, dagozkion ordezkoei osatuko dute, pertsona titularrekin batera izendatu beharko direnak. Nolanahi ere, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera eratu da.

Epaimahaiko kide eta ordezeko zehatzen zerrenda onartutako hautagaien behin-behineko zerrendarekin batera argitaratuko da.

Epaimahaia ezin izango da eratu, eta ezingo du jardun, presidentea eta idazkaria, edo haien ordezkoiak, eta gutxienez epaimahaikideen erdiak bertan ez badaude.

Epaimahaikideak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako abstentzio- eta errekusazio-kasuen mende daude.

Epaimahaiak, bertaratutako kideen botoen gehiengoz, oinarri hauetan jasotako arauak aplikatzeko sortzen diren zalantza eta proposamen guztiak ebartziko ditu, eta probak egiten diren bitartean sor daitezkeen arazoak ebazteko ahalmena izango du, bai eta, oinarrietan aurreikusten ez den guztian, probetan ordena egokia bermatzeko beharrezko neurriak hartzekoa ere.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako kasuetan eta moduan aurkaratu ahal izango dira haren erabakiak.

Zazpigarrena. Hautaketa-prozesuaren hasiera eta garapena

Merezimendu-lehiaketa ezarri da hautagaiak lan-poltsetan zein ordenatan sailkatuko diren zehazteko hautaketa-sistema gisa. Merezimenduak baremo honen arabera balioetsiko dira:

1. Administrazio publikoen AP taldeari dagozkion eginkizunetan emandako zerbitzuengatik, deitutako lanpostuaren antzeko eginkizunak dituzten lanpostuetan: 5 puntu egiaztatutako urte edo frakzio bakoitzeko, 25 puntu gehienez; epe laburragoak, berriz, hilabeteka hainbanatuko dira.

Toki-korporazioetan eta administrazio publikoetan izandako esperientzia egiaztatzeko, emandako zerbitzuen ziurtagiria aurkeztu beharko da, administrazio bakoitzak horretarako duen ereduari jarraikiz. Gainera, emandako zerbitzuen kidegoa edo eskala, azpieskala eta mota edo kategoria zehaztu beharko dira.

2. Enpresa pribatuan antzeko lanpostuetan emandako zerbitzuengatik: 5 puntu egiaztatutako urte edo frakzio bakoitzeko, 25 puntu gehienez; epe laburragoak, berriz, hilabeteka hainbanatuko dira.

Enpresa pribatuan izandako esperientzia "lan-bizitzaren ziurtagiriaren" bidez egiaztatuko da, puntuak zenbatzeko beharrezko datu guztiak argi eta garbi agertuz gero, lanbide-kategoria edo egindako lan-mota barne. Bestela, zerbitzuak eman diren enpresaren egiaztagiria aurkeztu beharko da, betetako lanpostuaren, denboraren eta zereginen berri emango duena.

3. Honako gai hauetan espezializatzeko ikastaroak, betiere lanpostuaren eginkizunekin lotuta badaude:
- Igeltserotza: 60 orduetik gorako ikastaro bakoitzeko, 0,5 puntu ikastaroko; gehienez puntu 1.
 - Iturgintza: 60 orduetik gorako ikastaro bakoitzeko, 0,5 puntu ikastaroko; gehienez puntu 1.
 - Elektrizitatea: 60 orduetik gorako ikastaro bakoitzeko, 0,5 puntu ikastaroko; gehienez puntu 1.
 - Lorezaintza: 60 orduetik gorako ikastaro bakoitzeko, 0,5 puntu ikastaroko; gehienez puntu 1.
 - Zurgintza: 60 orduetik gorako ikastaro bakoitzeko, 0,5 puntu ikastaroko; gehienez puntu 1.

Ikastaroak egiaztatzeko, zentro edo erakunde egiaztatuak emandako gairak egiaztatze-ziurtagiria edo titulua aurkeztu beharko da.

Lehiaketan lor daitekeen gehieneko kalifikazioa 50 puntukoa izan daiteke.

Zortzigarrena. Behin betiko kalifikazioa, puntuazioen argitalpena eta lan-poltsen eraketa

Hautaketa-prozesua osatzen duten merezimenduen kalifikazioa amaitutakoan, epaimahaiak hautagai bakoitzaren behin betiko kalifikazioa eta puntuazio-hurrenkera argitaratuko ditu, puntu gehien lortu duenetik puntu gutxien lortu duenera. Puntuazio hori prozesuan (lehiaketan) lortutako puntuazioen batuketak zehaztuko du. Era berean, lan-poltsak eratzeko proposamena egingo du, eta alkatetzari bidaliko dio.

Bederatzigarrena. Euskara-mailaren egiaztapena

EZ DA HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO AZTERKETARIK EGINGO.

Euskara-maila eskabidean alegatu beharko da. Data horretan hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izan ezean, eskatzaileak hautaketa-prozesuaren amaieran egiaztatu ahal izango du. Hizkuntza-eskakizunik ez dutenak ere lan-poltsan sartuko dira, baina hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek izango dute lehentasuna.

Era berean, euskararen ezagutza-mailari buruzko tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeari buruzko araudian ezarritakoaren arabera, euskararen ezagutzaren betekizuna egiaztatuta izango dute ordenamendu juridikoak IVAPek emandako 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizuneko baliokidetasuna ematen dien titulu edo ziurtagiriren bat dutenek.

IVAPek emandako hizkuntza-eskakizunen titulu edo ziurtagiri baliokidea egiaztatzeko:

- a) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari atxikitako irakasleen eremuko hizkuntza-eskakizunen bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Euskararen Gaitasun Agiria, Osakidetzaren esparruko hizkuntza-eskakizun bat, Ertzaintzaren hizkuntza-eskakizun bat edo helduei euskara irakasteko oinarriko curriculumak ezarritako euskararen ezagutza-mailak egiaztatzeari buruz Kultura Sailak emandako ziurtagiri bat alegatuz gero, hautagaiek honako hauek egin ahal izango dituzte:
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari berariazko baimena ematea dagozkion erregistroetan sartzeko, egindako alegazioa zehatza dela egiaztatzeko eta hautaketa-prozesuan dagozkion tituluak edo ziurtagiriak aurkeztetik salbuetsita geratzeko.
 - Baimen hori espresuki ez ematea, eta alegatutako titulua edo ziurtagiria duela egiaztatzea horretarako ezarritako epean.

- b) Aurreko a) atalean adierazitakoez bestelako euskararen ezagutza-tituluren edo ziurtagiriren bat alegatu badute, kasuan kasuko titulua edo ziurtagiria dutela egiaztatu beharko dute, horretarako ezarritako epean.

Hamargarrena. Lan-poltsen funtzionamendua

Lan-poltsa erabiliz gero:

- 1) Aldi baterako enplegu-programetarako balioko du.
- 2) Lan-kontratudun langileen lanpostu bete gabeak, oporrak eta bajak betetzeko balioko du.

Aldi baterako programak gauzatzeko aldi baterako lan-kontratudun langileak izendatzeko erabiliko da. Izendapenean, programaren aurreikusitako amaiera-data zehaztu beharko da, bai eta programa amaitzeko egoerak eta izendapena beharrezkoa egiten duten beharrak ere.

Egoera hauetan egon ahal izango da lan-poltsako kide bat:

1. Lanerako prest: ez da Alegria-Dulantziko Udalean zerbitzuak ematen ari.
2. Lanean: Alegria-Dulantziko Udalaren eremuan zerbitzuak ematen ari da. Egoera horretan dauden langileak "Lanerako prest" egoerara igaroko dira, eta, ondorioz, lan-eskaintzak jaso ahal izango dituzte zerbitzuak ematen amaitutakoan.
3. Aldi baterako baja: langilea egoera horretara igaroko da, aldeztu aurretik idatziz eskatuta, baldin eta:
 - Aldi baterako ezintasuneko egoeran edo amatasun-, aitatasun- edo familia-kontziliazioko lizentzian dagoela egiaztatuz gero.
 - Alegria-Dulantziko Udaletik kanpo lanean arituz gero, 15 eguneko epean justifikatu ondoren.
 - Behar bezala justifikatutako arrazoiak alegatuz gero; horiek aintzat hartzea alkatetzari dagokio.Aldi baterako baja-egoerara igarotzea eragin zuen arrazoiak amaitu ondoren, interesdunak idatziz jakinarazi beharko dio Alegria-Dulantziko Udalari, 10 eguneko epean, justifikazio-agiriak erantsita.
4. Behin betiko baja: langileak egoera honetara igaroko dira, baldin eta:
 - Borondatez eskatzen badute.
 - Alegria-Dulantziko Udalarekin duten lan-harremanean borondatez baja emanez gero.
 - Aldi baterako baja-egoerara igarotzeko arrazoiak egiaztatzen duen dokumentazioa 15 eguneko epean aurkeztu ezean, eta epe horretan aldi baterako baja-egoera amaitu dela jakinarazten edo egiaztatzen ez bada.
 - Bizileku- edo telefono-aldaketa jakinarazi ez dutelako, aurkitu ezinezkoen egoeran alta ematen bazaie eta egoera horretan hiru hilabete baino gehiago ematen badute.
 - Eskaintako lana onartzen ez badute edo, onartu ondoren, izendapenerako eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen ez badituzte.
 - Onartutako lana eskaintako beste baten truke utziz gero, salbu eta egiten ari ziren lana 15 egunetik beherakoa bazen eta eskaintza berria 3 hilabetetik gorakoa bada.Nolanahi ere, behin betiko baja lan-poltsan baino ez da emango.
5. Aurkitu ezinezkoa: langileen zerbitzuak ofizioz emango dio alta egoera horretan helbide- edo telefono-aldaketa jakinarazi ez duen langile orori, telegramai edo egiten zaizkion telefono-deiei erantzuten ez badie. Egoera horretan ez da inolako lan-eskaintzarik egingo.

Zehapen-prozedura:

Alkateak funtzionarioak edo lan-kontratudun langileak dagokien lan-poltsatik kanpo uztea edo behin betiko baja ematea eskatu ahal izango du, Euskal Funtzio Publikoaren Legean larri edo oso larri gisa tipifikatutako arau-hausteak egiteagatik.

Zehapen-prozeduran, interesdunaren eskubideak bermatu egingo dira, eta, nolanahi ere, entzunaldia eskainiko zaio interesdunari eta langileen ordezkariari entzun egingo zaie.

Deitzeko irizpideak:

- a) Lan-poltsaren hautaketa-prozesuan zehaztutako hurrenkeraren arabera egingo da deialdia.
- b) Deialdia jaso duen pertsonak eskaintzen zaion lana 24 orduko epean onartu ezean, behin betiko baja emango zaio lan-poltsan, behar bezala justifikatutako eta Alkatetzak onartutako ezinbesteko kasuetan salbu.

Lan-poltsaren deialdi-ordenaren salbuespena:

Pertsona bat lanpostu jakin batean lanean arituz gero eta 4 hilabete igaro baino lehen lanpostu hori betetzeko beharra ikusten bada, pertsona bera izendatu ahal izango da, betiere lan-poltsan lanerako prest badago.

Kontratuen baldintzak:

Hautagai orok probaldi bat gaingitu beharko du kontratuaren iraupenaren arabera, gehienez ere 15 egunekoa.

Probaldia amaitutakoan, zerbitzuburuak eta langileen buruak txostena egingo dute. Epaimahaiak ebaluatuko du, eta lan-poltsatik kanpo gera daiteke.

Inola ere ezin izango da lan-kontratudun langile finkoa izan oinarri hauetan ezarritako hautaketa-irizpideak aplikatuta.

Lan-poltsaren indarraldia:

Indarraldia lan-poltsarena bera izango da.

Hamaikagarrena. Gorabeherak

Interesdunek deialdia, oinarriak eta hautaketa-organo teknikoaren edo epaimahaiaren jarduketatik eratorritako administrazio-egintzak aurkaratu ahal izango dituzte, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduan eta epeetan.

Alegria-Dulantzin, 2023ko urriaren 30ean
ALKATEA

Joseba Koldo Garitagoitia Odria

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

I. eranskina

Eskabide-eredua:

Alegria-Dulantziko ikastetxe publikoan mantentze-lanetarako langilea aldi baterako kontratatzeko lan-poltsa zabaltzeko onarpen-eskaera

Izena _____

Lehen abizena _____

Bigarren abizena _____

Jaiotza-data _____ Jaioterria _____

Herrialdea _____, adinez nagusia, NANA _____,

telefono-zenbakia _____, helbidea _____
(kalea), _____ (herria), _____ (herrialdea), _____
(posta-kodea).

Posta elektronikoa _____.

Egokien dagokion moduan, honako hau dio:

Alegria-Dulantziko ikastetxean mantentze-lanetarako langilea aldi baterako kontratatzeko lan-poltsa sortzeko deialdian onartua izan dadila eskatzen duela.

Lanpostuko zereginak betetzeko gaitasun funtzionala duela.

Ez duela indarrean dauden xedapenetan ezarritako ezgaitasunik.

Diziplina-espediente bidez ez dela inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan eta ez dagoela funtzio publikoak betetzeko desgaituta.

Deialdiaren bigarren oinarrian adierazitako titulazioa duela eta ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela.

Eskabideak aurkezteko epemugari buruzko baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

.NANaren kopia erantsi dut.

.Euskararen 2. hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiraren kopia erantsi dut.

.Lehiaketa-faseari dagozkion agiri hauek erantsi ditut:

Nire eskaera:

Hautaketa-prozesuan onar nazatela.

_____(e)n, _____(e)ko _____ren _____(e)(a)n

(Sinadura)



II. Eranskina

Eginkizunak:

- Ikastetxeko instalazioak zaindu.
- Instalazioak ireki eta itxi.
- Instalazioetarako sarbideak kontrolatu.
- Publikoa aurrez aurre, modu telematikoan eta telefonoz artatu eta informatu.
- Posta eta egunkariak jaso, eta banatzen lagundu.
- Eraikineko mantentze-lanez arduratu (egiaztapenak, kontrolak, txukuntasuna, garbiketa...) eta oinarritzko konponketak egin.
- Materialak lekuz aldatzen eta/edo altzariak eta beste elementu batzuk birkokatzen lagundu.
- Zeregin osagarriak egin (fotokopiak, amaitutako materiala berrezarri, terminal informatikoak erabili, etab.).
- Jakinarazpenak banatu.
- Enpresei lagundu eta haiekin lankidetzan jardun.
- Beste atezain-lanpostu batzuk indartu eta/edo ordezkapenak egin, zerbitzuaren beharrek hala eskatzen dutenean.
- Nagusiak agintzen dion antzeko beste edozein eginkizun bete.